



HTC Desire

Instalazio-gida
laburra



htc
quietly brilliant

Euskaltelek itzulitako eta
ekoiztutako eskuliburua



Ezer baino lehen, irakurri informazio hau

Bateria kargatzea

Zure telefonoaren bateria oraindik ez da kargatu. Garrantzitsua da telefonoa kargatzen ari den bitartean bateria ez kentzea. Bateria kenduz gero, telefonoa kaltetu daiteke. Ez saiatu telefonoaren piezak bereizten (bereiziz gero bermearen baliozkotasuna bertan behera utziko duzu).

Prezio-plana zentzuz hautatzea

Zure telefonoak Internetera konektatzeko banda zabal handia eta azkarra erabil dezake. Telefonoa erabili aurretik, gomendagarria da zure mugikorreko operadorearekin hitz egitea datu-tarifei buruz. Datu-plan estandarra baduzu, baliteke gastuak nabarmen igotzea. Hortaz, ekonomikoagoa litzake tarifa finko batera aldatzea.

Pribatutasun-araudiei buruzko informazioa

Zenbait herrialdek lege zorrotzak dituzte telefono bidezko elkarrizketak grabatzeari buruz. Esaterako, batzuetan ezinbestekoa da hitz egiten ari zaren pertsonari jakinaraztea grabatzen hasi baino lehen. Horregatik, gomendagarria da bizi zaren herrialdeko legeak ezagutzea telefonoaren grabaketa-ezaugarria erabili aurretik.

Azkenik, gure lege-taldearen zenbait kontu garrantzitsu (KALTEAK MURRIZTEKO)

Legeak onartzen duen neurrian, HTCk edo haren filialek ez dituzte beren gain hartuko, zure aurrean, erabiltzailearen aurrean edo hirugarrenen aurrean, kontratuaren ondorioz gertatzen den edozein zeharkako kalte, kalte zehatz, sortutako kalte, oharkabeko kalte, kalte akzidental edo zigor-kalte, galera edo beste, barne harturik, adibidez, kalteak, diru-sarreren galera, merkataritza-ondarearen galera, negozio-aukeren galera, datu-galera eta/edo irabazien galera, kalte horiek aurreikusiak izan edo ez eta HTCri edo haren filialei kalte horiek sortu daitezkeela jakinarazia izan edo ez. HTCren edo haren filialen guztizko erantzukizuna ez da inolaz ere zuk jasotako zenbatekoa baino handiagoa izango, edozein dela ere kausaren oinarritzat aurkezten den lege-teoria. Aurreko guztiak ez dio eragiten nahitaezko inongo eskubideri, halakorik ezin baita baztertu.

Instalazio-gida labur honek telefonoa erabiltzen hasten lagunduko dizu. Gida honetan, sinbolo hauek erabiliko ditugu informazio garrantzitsua eta erabilgarria adierazteko



Oharrak



Informazio garrantzitsua



Aholkuak



Segurtasun-neurriak

Erabiltzailearen gida osoa edo bestelako laguntza-iturri batzuk eskuratzeko, sartu HTCren laguntza-webgunean: www.htc.com/support

Edukia


1. Paketearen edukia	4
2. Telefonoa ezagutzea	4
3. Telefonoa piztu aurretik	5
4. Sarrera	7
5. Kontaktuak gehitzea	9
6. Lehen deia egitea	10
7. HTC Sense	10
8. Internetera konektatzea	14
9. Mezuak jasotzea	16
10. Lagunekin harremanetan egotea	17
11. Telefonoan fitxategiak edukitzea	18
12. Telefonoa eta ordenagailua sinkronizatzea	19
13. Segurtasun-kopia egitea	21
14. Fabrikako balioak berrezartzea	22
15. Arazoak konpontzeko iradokizunak	23

1. Paketearen edukia


Paketeak hau izan behar du:

- Telefonoa
- Bateria
- USB kablea
- Entzungailu estereoa, 3,5 mm-koa
- Korrante-egokigailua
- MicroSDTM txartela (aurrez instalatutakoa)
- Instalazio-gida labur hau
- Lege-informazioa eta segurtasun-informazioa dituen gida

2. Telefonoa ezagutzea




3. Telefonoa piztu aurretik




1 Kendu atzeko estalkia

Jaso atzeko estalkiaren goiko alde. Irekigune estu bat dago ENERGIA botoitik gertu, eta irekigune horren bidez atzeko estalkia kendu dezakezu, hatzaren laguntzaz.




2 Sartu SIM txartela

1. Sartu SIM txartela, urre-koloreko kontaktuak beherantz dituela eta moztutako erpina kanpoalderantz duela.
2. Sakatu SIM txartela barruraino.




3 Sartu bateria

1. Jarri parez pare bateriaren kanpoko kobrezko kontaktuak eta bateriaren kokalekuko konektoreak.
2. Sartu lehenik bateriaren kontaktuen alde, eta, ondoren, jarri kontuz dagokion tokian.



4 Jarri berriro atzeko estalkia

1. Lehendabizi, jarri atzeko estalkiaren beheko aldea, telefonoaren atzeko beheko aldeko bi zuloetan lerrokatuz.
2. Sakatu atzeko estalkiaren aldeak eta goiko aldea, estalkia bere lekuan blokeatzeko. Klik bat entzungo duzu atzeko estalkia bere lekuan kokatzean.



5 Kargatu bateria.

1. Konektatu korrante-egokigailua USB konektorearekin, telefonoaren beheko aldean.
2. Bateria kargatzen hasteko, konektatu korrontearen egokigailua hartune elektrikora. Bateriak hiru bat ordu beharko ditu guztiz kargatzeko.

SIM txartela, bateria eta microSD txartela instalatu ondoren eta bateria kargatu ondoren, prest egongo zara telefonoa lehen aldiz pizteko. Sakatu PIZTEKO botoia, telefonoa aktibatzeko Irakurri, eta ikasi telefonoarekin zer egin dezakezun.

4. Sarrera

Telefonoa lehen aldiz piztean, tutoretzak eta gidak agertuko zaizkizu, posta elektronikoko kontuak eta gogokoen dituzun sare sozialak konfiguratzeko. Pantailako argibideei jarraitu diezaiekezu konfigurazioa burutzeko edo konfigurazio hori beste une batean egiteko.

1. Hautatu telefonoan erabili nahi duzun hizkuntza, eta, ondoren, sakatu **Siguiente**.
2. Lehenik eta behin, telefonoak automatikoki konfiguratzen ditu GPRS/3G, MMS eta WAP konexioak, zure SIM txartelaren baitan.
3. Telefonoak erakutsiko dizu, tutoretza bidez, teklatua pantailan nola erabili. Jarraitu tutoretzako argibideei teklatua pantailan erabiltzen ikasteko. Sakatu **Omitir** tutoretzara ez sartzeko.
4. Interneteko konexioaren pantailan, hautatu nola konektatu nahi duzun Internetera, eta, ondoren, sakatu **Siguiente**.
5. Hautatu datuen sinkronizazio automatikoa edo eskuzko sinkronizazioa ezarri nahi duzun (esaterako, datu hauena: posta elektronikoa, kontaktuak, eguraldia...), eta, ondoren, sakatu **Siguiente**.
6. WiFi sareren bat badago irismenaren barruan, sare batera konektatzeko eskatuko dizu. Sakatu **Siguiente**, eta, ondoren, egin klik konektatu nahi duzun haririk gabeko sarean. Bestela, kendu marka **Conectar a red Wi-Fi** egiaztapen-laukiari, eta, ondoren, sakatu **Siguiente** WiFi sarerako konexioa geroago konfiguratzeko.

7. Telefonoaren zenbait ezaugarrik (esaterako, Eguraldiak edo Footprints-ek) Google-ren kokapen-zerbitzu bat behar dute uneko kokapena automatikoki zehazteko. Consentimiento de ubicación pantailan, Google-ren kokapen-zerbitzuak zure kokapenari buruzko informazioa biltzea nahi duzun ala ez aukeratu dezakezu. Hautatu edo ez hautatu egiaztapen-laukia, eta, ondoren, sakatu **Siguiente**.


Baliteke zerbitzu horren eraginez zure hornitzaileak gastu osagarriak kobratzea, datu-transferentziaren eraginez. Telefonoaren kokapena konfiguratzeko izango duzu zerbitzu hori gaitzeko edo desgaitzeko aukera.

8. Configurar cuentas pantailan, aukeratu konfiguratu nahi duzun kontu-mota, eta, jarraitu pantailako argibideei konfigurazioa osatzeko. Sakatu **Omitir** kontuak geroago konfiguratzeko. Zure kontuak konfiguratuz amaitzen duzunean, sakatu **Siguiente**.
9. Configuración de redes sociales pantailan, hautatu zure mugikorretik atzitu nahi duzun sare sozialeko kontu-mota (esaterako, Facebook edo Twitter). Jarraitu pantailako argibideei sare sozialeko zure kontuan saioa hasteko. Sakatu **Omitir** sare sozialeko kontuak geroago konfiguratzeko. Zure kontuak konfiguratu ondoren, sakatu **Siguiente**, Configuración de redes sociales pantailan.
10. Zenbait datu eta ezarpen automatikoki kopiatzen dira biltegitratze-txartelean segurtasun-neurri modura. Ez baduzu datu eta ezarpen horiek biltegitratze-txartelean automatikoki gordetzerik nahi, kendu egiaztapen-laukiaren marka, eta, gero, sakatu **Aceptar**.
11. Amaierako pantailak adieraziko dizu non eskuratu dezakezun zure telefonoaren erabilerari buruzko informazio gehiago. Sakatu **Finalizar**.

5. Zure kontaktuak gehitzea

Kontaktuak telefonora gehitzeko modu bat baino gehiago dago.

SIM txarteleko kontaktu guztiak inportatzea



1. Hasierako pantailan, sakatu  > **Contactos**.
2. Todos fitxan, sakatu MENU. Ondoren, sakatu **Importar/ Exportar > Importar de tarjeta SIM**.



Telefonoan Google-ren eta/jedo Exchange ActiveSync-en kontu bat erabiltzen baduzu, kontaktu-mota ukitu beharko duzu inportatutako kontaktuak kategorizatzeke.

3. Seleccionar contactos para importar pantailan, sakatu MENU eta, ondoren, sakatu **Importar todo**.

Kontaktu berri bat gehitzea

1. Pantaila nagusian, sakatu  > **Contactos**.
2. **Todos** fitxan, sakatu **Añadir contacto**.
3. Sakatu **Nombre** eremua, idatzi kontaktuaren izen-abizenak, eta, ondoren, sakatu **Aceptar**.
4. Sakatu  pantailan teklatura ezkutatzeko, sakatu **Mostrar nombre** laukitxo, eta, ondoren, hautatu kontaktuen zerrendan kontaktuaren izena nola bistaratzea nahi duzun.
5. Sakatu **Aceptar**.
6. Hautatu **Cuenta de contacto** kontaktu bat sortzeko.
7. Sartu kontaktuaren gainerako informazioa dagokion eremuetan.
3. Joan pantailaren beheko aldera, eta, ondoren, sakatu **Guardar**.

Beste iturri batzuetako kontaktuak sinkronizatzea

Google, Microsoft Office Outlook, Outlook Express, Exchange ActiveSync eta Facebook-eko kontaktuak bizkor eta modu uniformearen sinkroniza ditzakezu telefonoan. Gai honi buruzko informazio gehiago jakiteko, ikus erabiltzailearen gidaliburu osoa gure webgunean: www.htc.com/support.

6. Lehen aldiz deitzea

1. Pantaila nagusian, sakatu **Teléfono** pantailaren beheko aldea.
2. Markatu hartzailearen telefono-zenbakia edo hartzailea bera eta sakatu **Llamar**.

Telefonoko markaketa-teklatura sakatu ahala, sakatutako teklen arabera telefonoan eta deien erregistroan bat datozen zenbakiak bistaratuko ditu pantailan.

3. Esekitzeko, sakatu **Finalizar llamada**

7. HTC Sense

Ezagutu HTC Sense™ zure telefonoan: funtzio intuitibo eta uniforme bat da, oinarrizko hiru printzipiotan oinarritzen dena, pertsonalizatzea, konektatuta egotea eta ustekabeak aurkitzea.

Pantaila nagusi pertsonalizatua

Pantaila nagusiaren atal gehienak pertsonaliza daitezke, baita pantaila-zabaleratik harago ere. Hartara, nahiko espazio izango duzu informazio garrantzitsuena eta zure zereginak errazteko tresnak edo aplikazioak sartzeko. Telefonoko pantailan ezkerrean eta eskuinera zabaltzen diren zazpi pantaila daude.



Lerratu ezkerreko edo eskuineko hatza, pantaila nagusi handituan batetik bestera joateko.

Edota

Sakatu pantailan, pantaila nagusiaren eta pantaila nagusi handituaren uneko argazkia bistaratzeko; ondoren, sakatu pantailaren miniaturan, zuzenean pantaila horretara joateko.



Edozein unetan saka dezakezu **HASIERAKO ORRIA** botoia, telefonoan edozein gauza egiten ari zarela, pantaila nagusira joateko.

Widget-ak

Widget-en bidez, informazio garrantzitsua eta multimedia-edukiak gehitu ditzakezu, eta pantaila nagusitik zuzenean sar zaitzake informazio eta eduki horietara. Askotariko widget-ak dituzu telefonoan, eta, gehiago behar badituzu, webetik deskargatu ditzakezu, pantaila nagusira gehitzeko.

Pantaila nagusira widget-ak gehitzeko, sakatu **+**, eta, ondoren, hautatu **Widget**.

Eszenak

Ezin erabakita zabilta pantaila nagusiari zer konfigurazio ezarri? Begiratu telefonoan sartu dugun **Eszenas** aukerari. Eszenak aurrez zehaztutako pantailen diseinuak dira, eta bizkor-bizkor aplikatu daitezke. Pantaila nagusian, sakatu **MENU** eta, ondoren, **Eszenas**, diseinu lehenetsiak ikusteko.

Horietako bat hautatutakoan, pertsonalizatu eta eszena berri gisa gorde dezakezu.

1. Pertsonalizatu pantaila nagusia, pantailaren atzealdea aldatuz. Halaber, widget-ak, lasterbideak eta askoz gauza gehiago gehitu ditzakezu.
2. Pertsonalizatzen amaitutakoan, sakatu MENU eta, ondoren, **Escenas**.
3. Hautatu **Actual (sin guardar)**, eta, ondoren, sakatu **Guardar**.
4. Bete **Nombre de la escena** eremua, eta, ondoren, sakatu **Listo**.



Eszena pertsonalizatu baten izena aldatu dezakezu, edo eszena ezabatu. Pantaila nagusian, sakatu MENU eta **Ajustes > Personalizar > Escenas**. **Mis escenas** atalean, sakatu eszena bat segundo batzuetan, eta egin zuk nahi duzun aldaketa.

Contactos


Jarri jende kutunena ahalik eta hurbilen. Zure telefonoak toki bakar batean antolatzen ditu testu-trukeak, posta elektronikoko bidezko elkarrizketak, Facebook-eko egoera, lineako argazki-albumak eta kontaktu baten telefono-erregistroak.

Sakatu kontaktu baten izena, eta azken aldian pertsona horrekin izandako komunikazio guztiak ikusiko dituzu berehala.

Friend Stream

Dinamizatu sare sozialean dituzun kontuak, Friend Stream-en bidez. Friend Stream-ekin, une horretan pentsatzen ari zarena sare sozialean argitaratu dezakezu. Horrez gain, egoera-eguneraketak, tweet-ak eta sare sozialeko kontuan dituzuna argazkiak ikus ditzakezu.

Noticias



Harpidetu feed berrietara, Interneteko azken nobedadeen berri izateko. Noticias aplikazioak RSS feed guztiak kontrolatzen ditu albisteen gune gogokoetatik, blogetatik eta beste hainbat tokitatik, eta, gainera, eguneratze eta podcast berrienak deskargatzen ditu.

Microsoft Exchange ActiveSync

Orain, dotorea eta segurua den telefono bat erabil dezakezu; izan ere, telefono honek laneko posta elektronikoaren eta beste zenbait informazioaren segurtasuna bermatzen du. Zure telefonoak euskarri hobetua du Exchange segurtasun-ezaugarrietarako, hala nola pasahitz bidezko babesa eta urrutiko baliogabetzea.

Halaber, zure telefonotik zuzenean konfigura dezakezu "Bulegotik kanpo" egoera. Gainera, erraz-erraz sartu zaitezke zure enpresako helbideen aurkibide orokorrera, norbaitekin harremanetan jarri nahi eta telefonoan haren daturik ez baduzu.

8. Internetera konektatzea

Zure telefonoak zuzenean patrikara ekartzen dizu Internet. Datu-konexio edo WiFi konexio baten bidez konekta zaitezke.

Datu-konexio bat erabiltzea

Erraza da. Telefonoa lehen aldiz piztean (SIM txartela sartuta), zure operadore mugikorraren datu-zerbitzuarekin konektatu behar luke automatikoki.

Automatikoki konektatzen ez bada, saiatu hau egiten:

- Egiaztatu datu-konexioa aktibatuta dagoela.
Baliteke datu-konexioa aktibatuta ez egotea. Hori egiaztatzeko:
 1. Pantaila nagusian, sakatu MENU eta, ondoren, **Ajustes**.
 2. Sakatu **Inalámbrico y redes**, eta hautatu **Red móvil** egiaztatze-laukia, konexioa aktibatzeko.
- Egiaztatu sare mugikor egokia dagoela hautatuta.
 1. Pantaila nagusian, sakatu MENU eta, ondoren, **Ajustes**.
 2. Sakatu **Inalámbrico y redes > Configuración de red móvil > Operadores de red** edo **APN**.


WiFi erabiltzea

1. Pantaila nagusian, sakatu MENU eta, ondoren, **Ajustes > Inalámbrico y redes**.
2. Hautatu Wi-Fi egiaztatze-laukia, Wi-Fi aukera aktibatzeko. Erabilgarri dauden haririk gabeko sareak bilatuko ditu telefonoak.
3. Sakatu **Configuración de Wi-Fi**. Detektatzen diren WiFi sare guztien izena eta segurtasun-konfigurazioa izango dituzu ikusgai.

4. Sakatu WiFi sarea, konektatzeko. Sare ireki bat hautatzen baduzu, automatikoki konektatuko da. Segurtasuna gaitua duen sare bat hautatzen baduzu, sartu gakoa, eta, ondoren, sakatu **Establecer conexión**.

Webean nabigatzea

Telefonoko nabigatzaileari esker, errazago nabiga dezakezu, eta entretenigarriagoa da.

1. Pantaila nagusian, sakatu **Navegador**.
2. Navegador pantailan, sakatu MENU, eta, ondoren, sakatu pantailaren goiko URL eremua.
3. Sartu web-helbidea. Helbidea sartzen duzunean, pantailan agertzen dira bat datozen web-orrien helbideak. Sakatu helbide batean, zuzenean web-orri horretara joateko, edo, bestela, jarraitu zuk nahi duzun web-orriaren helbidea sartzen, eta, ondoren,  Enter tekla.
4. Web-orrian, mugitu hatza orrian nabigatzeko edo orria hurbildu edo urruntzeko.

Bereizi erpurua eta hatz erakuslea, web-orri bat hurbiltzeko.




Hurbildu erpurua eta hatz erakuslea, web-orri bat urrutiratzeko.

9. Zure mezuak lortzea

Sartu zure posta elektronikoko kontuetara zuzenean telefonotik.

POP3/IMAP posta elektronikoko kontu bat gehitzea

1. Pantaila nagusian, sakatu  eta, ondoren, **Correo**.
2. Elegir un proveedor de correo pantailan, sakatu **Otro (POP3/IMAP)**.




Konfiguratu nahi duzun kontu-mota oraindik telefonoaren datu-basean ez badago, xehetasun gehiago sartzeko eskatuko dizu. Denbora aurrezteko, eduki prest sarrerako/irteerako zerbitzariaren informazioa. Posta elektronikoen hornitzaileak emango dizu informazio hori, horren berri ez baduzu.


3. Sartu helbide elektronikoa (**Dirección de correo electrónico**) eta kontu horren pasahitza (**Contraseña**), eta, ondoren, sakatu **Siguiente**.
4. Sartu kontuaren izena (**Nombre de cuenta**) eta zure izena (**Nombre**), eta, ondoren, sakatu **Finalizar configuración**.



Exchange ActiveSync-eko kontu bat ere konfiguratu dezakezu. Ikus gure webguneko erabiltzailearen eskuliburuko posta elektronikoa iruzko atala (Correo electrónico), zer egin jakiteko.



Mezu elektronikoak bidaltzea

1. Pantaila nagusian, sakatu  eta, ondoren, **Correo**.
2. Posta elektronikoko kontuaren sarrerako postontzian, sakatu MENU eta, ondoren, sakatu **Redactar**.
3. Gehitu hartzaile bat edo batzuk. Aukera hauek dituzu:
 - Helbide elektronikoak zuzenean **Para** eremua idatzi. Mezu elektronikoa hartzaile bati baino gehiagori bidali nahi badiozu, bereizi helbideak koma batekin.

- Sakatu  ikonoa, eta, ondoren, hautatu zer kontakturi bidali nahi diezun mezua. Mezuaren hartzaile guztiak hautatutakoan, sakatu **Aceptar**.
4. Sartu gaia eta, ondoren, idatzi mezua.
 5. Sakatu **Enviar**.

10. Lagunekin harremanetan egotea

Lagunekin linean harremanetan egoteko behar duzun guztia du zure telefonoak. **Contactos** eta **Friend Stream** aplikazioek sare sozial nagusietarako zuzeneko sarbidea ematen dizute. Facebook-eko egoera eguneratu dezakezu, zure lineako albumetako argazkiak bilatu, edo Twitter-eko zure tweet-ei jarraitu. Dena sartuta dago, eta erabiltzeko prest.



Friend Stream-i, Facebook-i eta Peep-i (zure telefonoko Twitter bezeroa) buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, ikus gure webguneko erabiltzailearen eskuliburuko Social atala.

11. Telefonoan fitxategiak edukitzea

Eraman fitxategiak zurekin, edonora zoazela ere. Telefono honetan, Word, Excel, PowerPoint eta PDF fitxategiak ikusi ahal izango dituzu. Halaber, musika entzun dezakezu, argazki- eta bideo-galeria baliotsuak ikusi.



microSD txartela konektatu behar duzu, fitxategiak telefonoan kopiatzeko.

1. Konektatu telefonoa ordenagailura, emandako USB kablearen laguntzaz.
2. **Conectar a PC** elkarrizketa-koadroa agertzen denean, hautatu **Unidad de disco** eta, ondoren, sakatu **Listo**.
3. Zure ordenagailuak disko aldagarri gisa irakurtzen du konektatutako telefonoa. Zoaz disko aldagarri horretara, eta ireki.
4. Kopiatu fitxategiak memoria-txartelean.
5. Fitxategiak kopiatutakoan, desmuntatu telefonoa ordenagailuaren sistema eragileak adierazten duen bezala, telefonoa modu seguruan ateratzeko.
6. Ireki zure telefonoko Panel de notificaciones atala, eta, ondoren, sakatu **Desactivar almacenamiento USB**. Azaltzen denean, sakatu **Desactivar**.
7. Deskonektatu telefonoa ordenagailutik.

12. Zure telefonoa ordenagailuarekin sinkronizatzea

HTC Sync erabil dezakezu Outlook-eko kontaktuak eta egutegia sinkronizatzeko edo Outlook Express-eko kontaktuak zure ordenagailuaren eta telefonoaren artean sinkronizatzeko.

microSD txartelarekin datorren HTC Sync instalatzea

Erabili HTC Sync-en instalatzailea, microSD txartelarekin datorrena, instalatzeko.

1. Ziurtatu microSD txartela telefonoan sartuta dagoela.
2. Konektatu telefonoa ordenagailura, telefonoarekin emandako USB kablearen bidez.
3. Conectar a PC pantaila izango duzu pantailan. Sakatu **Unidad de disco** eta, ondoren, **Listo**.
4. Ordenagailuak disko aldagarri gisara tratatuko du telefonoa (edozein USB unitateren antzera). Ireki disko aldagarria, microSD txartelean zer dagoen ikusteko.
5. Kopiatu HTCSync.exe fitxategia zure ordenagailuan.
6. Sakatu PÁGINA PRINCIPAL > MENU, eta sakatu **Notificaciones**. Ondoren, sakatu **Desactivar almacenamiento USB** eta, ondoren, **Desactivar**. Orain, desentxufa dezakezu telefonoa ordenagailutik.
7. Ordenagailuan, egin bi klik HTCSync.exe fitxategiaren gainean, eta jarraitu HTC Sync instalatzeko pantailan azalduko zaizkizun argibideei.

HTC Sync konfiguratzea

Instalatutakoan, konfiguratu HTC Sync, ordenagailuak ezagutzeko eta telefonoarekin sinkronizatzeko.

1. Konektatu telefonoa ordenagailuari.
2. Telefonoaren Conectar a PC pantailan, sakatu HTC Sync eta, ondoren, **Listo**. Ordenagailuan **HTC Sync** aurkitzen saiatuko da telefonoa; baliteke zenbait segundo behar izatea horretarako.



Telefonoan mezu bat azaltzen bada esanez ezin duela HTC Sync aurkitu, deskonektatu USB kablea eta konektatu berriro, eta, ondoren, egin berriro 2. urratsa.

3. Telefonoak HTC Sync aurkitzen duenean, ordenagailuak telefonoa konfiguratzeko laguntzailea (Asistente de configuración del teléfono) bistaratuko du. Sakatu **Siguiente**.
4. Idatzi telefonoarentzako izen bat, eta sakatu **Finalizar**.
5. Begiratu HTC Sync-en ikonoa ordenagailuan. Kolore berdea badu, telefonoa ordenagailuari konektatuta dago eta HTC Sync-ek ezagutzen du telefonoa.



6. Egin bi klik HTC Sync-en ikono berdean. Ondoren, sakatu **Sincronizar ahora** (edo, bestela, hau: **Administrador de sincronización > Ajustes**).
7. Sinkronizazioaren konfigurazio-laguntzailean, sakatu **Siguiente**.
8. Hurrengo elkarrizketa-koadroetan, aukeratu Outlook edo Outlook Express sinkronizatu, hautatu sinkronizatu beharreko informazio-mota (kontaktuak eta/edo egutegia) eta hautatu telefonoarekin automatikoki sinkronizatzeko aukera.
9. Sakatu **Finalizar**.

Zure telefonoa eta ordenagailua automatikoki sinkronizatzea

Egin hau lehendabizi, telefonoa eta ordenagailua automatikoki sinkronizatuko direla ziurtatzeko.

1. Sakatu PÁGINA PRINCIPAL > MENU eta, ondoren, **Ajustes > Aplicaciones > Desarrollo**.
2. Ziurtatu **Depuración USB** egiaztatze-laukia hautatuta dagoela.

Telefonoa ordenagailura konektatzen duzun bakoitzean, automatikoki hasiko da sinkronizazioa.

HTC Sync-en azken eguneratzea deskargatzea

Ikus HTCren laguntza-webgunea (www.htc.com/support) noizean behin, HTC Sync-en azken eguneratzea zure ordenagailura deskargatu eta han instalatzeko. Azken eguneratzea instalatutakoan, jarraitu "Configuración de HTC Sync" ataleko pausoei, HTC Sync konfiguratzeko, ordenagailuak telefonoa ezagut dezan eta telefonoarekin sinkroniza dezazun.

13. Segurtasun-kopiak egitea

Badakigunez datuak galtzea baino gauza okerragorik ez dagoela, zure telefonoarekin halakorik ez zaizula gertatuko ziurtatzen dugu. Telefonoak duen segurtasun-kopiak egiteko ezaugarriarekin, ziur egon zaitezke ez duzula daturik galduko.



microSD txartela konektatu beharko duzu datuen segurtasun-kopia bat egiteko

Segurtasun-kopia automatikoa gaituta dagoen begiratzea

1. Sakatu PÁGINA PRINCIPAL > MENU eta, ondoren, **Ajustes**.
2. Zoaz pantailan beherantz, eta sakatu **Privacidad > Hacer una copia de seguridad de mis datos**.
3. Ziurtatu **Hacer una copia de seguridad de mis datos** egiaztatze-laukia hautatuta dagoela.


Telefonoak hauen segurtasun-kopia bat egingo du:

- MMS mezuak eta testu-mezuak
- Teklatuaren hiztegia
- Nabigatzaileko gogokoak
- Doikuntzak

Kontsultatu gure webguneko erabiltzailearen eskuliburuko segurtasun-kopiei buruzko atala (Copia de seguridad), zure telefonoak microSD txartelean kopiatu ditzakeen informazio-moten zerrenda oso bat eskuratzeko eta zure telefonoan nola berrezarri jakiteko.

14. Fabrikako berrezarpena

Berriro hasi behar duzu? Telefonoa beste norbaiti eman behar badiozu, edo besterik gabe hutsetik hasi nahi baduzu, gailua fabrikako balioen arabera berrezar dezakezu. Hori ez da arinkeriaz eman beharreko pausoa. Fabrikako balioak berrezartzean, telefonoko datu guztiak ezabatuko dituzu, bai eta deskargatu eta instalatu dituzun aplikazio guztiak ere. Lehen aldiz piztu aurretik zuen egoera hartzen du telefonoak.

 Telefonoan fabrikako berrezarpena egin baino lehen, egin gorde nahi dituzun telefonoko datu guztien segurtasun-kopia.

Konfigurazioaren bidez telefonoa berrezartzea

1. Pantaila nagusian, sakatu MENU eta, ondoren, **Ajustes > Privacidad > Rest. datos de fábrica**
2. Restablecer datos de fábrica pantailan, sakatu **Reiniciar teléfono** eta, ondoren, **Borrar todo**.

Botoiak erabiliz telefonoa berrezartzea

1. Telefonoa itzalita dagoela, sakatu zenbait segundotan BOLUMENA JAISTEKO botoia, eta, ondoren, sakatu labur PIZTEKO botoia.
2. Itxaron pantailan Android-en hiru irudi azaldu arte, eta, ondoren, askatu BOLUMENA JAISTEKO botoia.
3. Sakatu BOLUMENA JAISTEKO botoia, **BORRAR ALMACENAMIENTO** hautatzeko, eta, ondoren, sakatu PIZTEKO botoia
4. Berresteko eskatzen zaizunean, sakatu BOLUMENA IGOTZEKO botoia.

Telefonoa fabrikako balio lehenetsiekin berrezarri gero, ez dira ezabatzen microSD txarteleko edukiak.

15. Arazoak konpontzeko iradokizunak

Hona hemen zenbait neurri telefonoa erabiltzean arazoren bat duzunerako, arazoa lehenbailehen konpontzeko:

- Begiratu telefonoan aplikazioa exekutatzeko behar adina leku libre dagoen.
Zenbat leku dagoen jakiteko, zoaz pantaila nagusira, sakatu MENU eta, ondoren, **Ajustes > Almacenamiento**.
- Ezabatu datuak eta aplikazioen cache memoria.
Datuak eta cache memoria ezabatzeko, zoaz pantaila nagusira, sakatu MENU eta, ondoren, **Ajustes > Aplicaciones > Administrar aplicaciones**.
- Desinstalatu hirugarrenen aplikazio guztiak.
Hirugarrenen aplikazioak desinstalatzeko, zoaz pantaila nagusira, sakatu MENU eta, ondoren, **Ajustes > Aplicaciones > Administrar aplicaciones**.
- Telefonoak erantzuten ez badu, kendu bateria, itxaron hiru segundo, jarri berriro bateria, eta piztu telefonoa. Bestela, egin datu garrantzitsuen segurtasun-kopia, eta berrezarri telefonoa fabrikako balioen arabera.
Telefonoa fabrikako balioen arabera berrezartzeko, sakatu **HASIERAKO ORRIA > MENU** eta, ondoren, **Ajustes > Privacidad > Rest. datos de fábrica**.
- Begiratu eguneratze gehigarriak eta beste zenbait iradokizun gure webgunean: www.htc.com/support.



2008ko Kudeaketaren Kalitatearen
Urrezko Q saria



Q Oro Premio a la Calidad de
Gestión 2008